BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

856

EBAZPENA, 2013ko urtarrilaren 18koa, Industria eta Energiako sailburuordearena, Asociación Empresarial de Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción y afines de Vizcaya (Afonvi) delakoari, profesional baimenduak prestatzeko, aitortutako erakunde gisa jarduteko baimena berriztatu eta espezialitate berrietan jarduteko baimena ematen diona.

Espediente zk. / Gaia: SEG/0004/2013.

AURREKARIAK

Bat.– Kontsumo eta Industria Segurtasuneko zuzendariaren eta Energia eta Meategien zuzendariaren 2007ko urriaren 23ko Ebazpenaren bitartez (2007-12-05eko EHAA), zenbait espezialitatetan profesionalak prestatzeko, Asociación Empresarial de Fontaneria, Saneamiento, Gas, Calefaccion y afines de Vizcaya (Afonvi) delakoari aitortutako erakunde gisa jarduteko baimena eman zitzaion. Hauek dira espezialitateok:

– Iturgintzako banakako kualifikazio-agiria.

– Galdaragintzako industria-operadorearen banakako kualifikazio-agiria.

– Berokuntza eta ur bero sanitarioen instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (A instalatzailea).

– Klimatizazio-instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (B instalatzailea).

– Berokuntza eta ur bero sanitarioen instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (A mantentzailea).

– Klimatizazio-instalazioen mantenimendurako banakako kualifikazio-agiria (B mantentzailea).

– Hozkailu-instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria.

– Hozkailu-instalazioak kontserbatu edo konponketarako banakako kualifikazio-agiria.

– Gas-instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (IG1-A kategoria).

– Gas-instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (IG1-B kategoria).

– Gas-instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (IG1-C kategoria).

– Petroliotiko gas likidoetarako instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (I kategoria).

– Petroliotiko gas likidoetarako instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria (II kategoria).

– Behe-tentsioetako banakako kualifikazio-agiria oinarrizko kategoria.

Bi.– Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariaren 2011ko ekainaren 2ko Ebazpenaren bitartez (2011-08-02ko EHAA), Afonvi entitatea, gas fluordunen manipulazioko hainbat espezialitatetan profesional baimenduak prestatzeko entitate gisa aitortzeko zen, zehazki hauetan:

– Ekipoen manipulazioa, fluordun hozgarrien edozein kopuruko hozkailu-sistemekin diharduena.

– Ekipoen manipulazioa, fluordun hozgarrien kopurua 3 kg baino txikiagoa duten hozkailu-sistemekin diharduena.

– Fluordun gasak dituzten suteen aurkako sistemen edo itzalgailuen manipulazioa.

– Fluordun gasetan oinarriturik dauden disolbatzaileen eta horiek erabiltzen duten ekipoen manipulazioa.

Hiru.– 2012ko urriaren 31n, Asociación Empresarial de Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción y afines de Vizcaya (Afonvi) delakoaren ordezkaritzak, profesionalak prestatzeko aitortutako erakunde moduan aritzeko baimena berriztatzeko eskabidea aurkeztu zuen. Eskabidea aurretik aitortuta zituen espezialitateetarako eta, gainera, ondoren adierazten den espezialitate berrirako egin zen.

– Petroliotiko gas likidoetarako instalazioetarako banakako kualifikazio-agiria: ICL 3.

Lau.– Eskabide horrekin batera, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. Kapituluan aurreikusitako eskakizun eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ziren. Industria-segurtasunaren alorrean, norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen ditu dekretu horrek. Aurkeztutakoak honakoak dira:

– Entitatearen identifikazio-datuak. Egoitza: Jon Arrospide kalea, 14; 48014 Bilbao.

– Prestakuntza-prozesua burutzeko ikastetxeak dituen instalazioen azalpena eta Santurtziko San Jorge LHBI-rekin egindako hitzarmenaren kopia.

– Prestakuntza-jarduerak gauzatzeko entitateak dituen giza baliabideen deskribapena.

– Garatuko diren ikastaroei buruzko zehaztapenak, gaiak, metodologia, antolakuntza eta ebaluazio-sistemak xehetasunez azalduta.

Bost.– Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak, 2012ko azaroaren 12an, aldeko txostena eman zion Asociación Empresarial de Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción y afines de Vizcaya (Afonvi) delakoak aurkeztutako eskabideari, hain zuzen ere aitortutako erakunde gisako baimena berriztatu eta baimena bera zabaltzeko.

Espedientea ebazterakoan beharrezkoa da honako hauek aintzat hartzea eta aipatzea:

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Bat.– Industria eta Energia Sailburuordetza da espediente hau ebazteko eskumena duen organoa, Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuko Xedapen Iragankorraren arabera (20/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoan eta jardun-arloak finkatzen dituena) eta irailaren 22ko 514/2009 Dekretuko Lehen Xedapen Gehigarriak ezarritakoarekin bat etorriz (514/2009 Dekretua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituena).

Bi.– Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartela eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, prestakuntza-ikastaroak emateko gaur egun onetsita dauden erakundeek baimena 5

urtean behin berritu behar dute, Dekretu horren 25. artikuluan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete dituztela egiaztatu ondoren.

Hiru.– Ondorioz, eskatzaileak aurkeztutako agirietan ikus daitekeenez, Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción y Afines de Vizcaya (Afonvi) delakoak baditu Dekretuaren 22. artikuluan eskatzen diren gutxieneko instalazioak, aitortutako erakunde gisako kreditazioa jasotzeko. Instalazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan daude.

Lau.– Halaber, garatu beharreko ikastaroei buruzko kreditazio nahikoa aurkeztu da, eta zehaztu egin dira gai-zerrendak, metodologia, antolakuntza eta ebaluatzeko aurreikusitako sistemak, bai berriztatu beharreko espezialitateei bai baimendu beharreko espezialitateei dagokienez.

Bost.– Justifikatu egin dira, halaber, erakundeak espezialitate ezberdinetan ikastaroak emateko dituen giza baliabideak, berriztatu zein baimendu beharreko espezialitateetan.

Sei.– Labur esanda, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretu horretan ezarritakori jarraituz izapidetu da prozedura, eta erakunde eskatzaileak, bere aldetik, dekretu horren 25. artikuluan jasotako egiaztagiri nahikoa aurkeztu ditu.

Aipatutako lege-manuak eta oro har eta gai honetan aplikatzekoak diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Industria Segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraituz, Bilboko «Asociación Empresarial de Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción y Afines de Vizcaya (Afonvi)» delakoari, profesional baimenduak trebatzeko, aitortutako erakunde gisa aritzeko baimena berritzea. Horretarako espezialitateak honakoak dira:

- Barruko ur-instalazioak:	IA
- Gas istalazioak	IGA
	IGB
	IGC
- Instalazio termikoak eraikinetan:	IMT
- Petrolio ekoizkin likidoak:	ICL 1
	ICL 2
- Fluordun gasa daukaten ekipoen maneiatzailea:	GF 1
	GF 2
	GF 3

2.– Martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitako ondorioetarako, Asociación Empresarial de Fontanería, Saneamiento, Gas, Calefacción y Afines de Vizcaya (Afonvi) elkarteari, baimendutako profesionalak trebatzeko, aitortutako erakunde gisa aritzeko baimena zabaltzea. Horretarako espezialitateak honakoak dira:

- Petrolio ekoizkin likidoak:	ICL 3

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

4.– Erakunde honek baimena du kreditazioa duten Bizkaiko Lurralde Historikoko instalazioetan kurtsoak emateko. Eskolak beste instalazio batzuetan eman nahi baditu, nahitaezko baimena eskatu beharko du eskumena duen lurralde-bulegoan, eta egiaztatu egin beharko du instalazio horiek maiatzaren 14ko 63/2006 Dekretuaren 22. artikuluan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela.

5.– Aitortutako entitate orok bete beharko ditu legezko xedapenek eta erregelamenduzkoek ezartzen dituzten eginbeharrak, bereziki, martxoaren 14ko 63/2006 Dekretuaren V. kapituluan aurreikusitakoak.

6.– Baimendutako entitateek galdu egingo dute baimendutako entitateren kalifikazioa, baldin eta bete gabe uzten badituzte aipatu dekretuan xedatutako betebeharrak eta konpromisoak edo aplikatu behar diren bestelako arauak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari zuzenduta, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabeteko epearen barruan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluak eta ondorengoek diotenaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urtarrilaren 18a.

Industria eta Energiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.